

6 Bezeroekin harremanak

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Bezeroak gure proposamenarekin lotuta mantentzeko burutuko diren ekintzak zehaztea.

Adibidez:

- Komunikazio kanal zuzen eta etengabeak ezartzea (posta elektronikoa, newsletter-ak, telefono bidezko arreta, etab.).
- Bezeroarentzako balio gehigarria eskaintzen duten ekintza espezifikoak (eskaintza eskusiboak, ohiko erosketa-saria, etab.).
- Feedback sistemak sustatzea, bezeroek iritzia eman eta hobetzeko proposamenak egin ditzaten.

BEZEROAREN INTEGRAZIOA

Bezeroa gure negozio-ereduarekin modu aktiboan integratzeko estrategiak diseinatzea.

Adibidez:

- Harpidetza ereduak sortzea, bezeroek etengabeko zerbitzu edo produktuetara sarbidea izan dezaten.
- Bezeroen komunitateak sortzea (adibidez, erosketa-esperientzien inguruko foroak edo elkarteak).
- Aliantzak edo lankidetzak garatzea, bezeroak gure ekosistemaren parte sentiarazteko.

NORENTZAT IZANGO DA GURE PROIEKTUA

- Adineko pertsonak: Medikamentuak hartzeko zailtasunak eta larrialdietan laguntza azkarra behar izatea.
- Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak: Osasunaren jarraipena eta kontrol zorrotza.
- Bizimodu aktiboa duten pertsonak: Medikamendu eta ohituren gogorazpenak lagungarriak izatea.

